

ROXALI

(Bost gertaldiko antzerkia-1970)

Jokalariak : *Roxali* : 21 urte, pollit.

Lili : 20 urte, eder.

Ama : 45 urte, edozoin.

Serora superiora : 60 urte, idor eta zintzo.

Mixel : 25 urte, eder.

Kankail : 50 urte, handi.

Pollit : 25 urte, pollit.

Omoniera : 40 urte, edozoin.

Jakinputz : 45 urte, xut, idor, bitzia jantziz eta moldez.

Bitor : 40 urte, edozoin.

Cloco : Hiritako "clochard" bat, sasi bizar batekin.

LEHEN GERTALDIA

Joka-lekua : Etxe barne bat.

ROXALI . - (*Zurubi baten gainean, ari da murrugarbitzen. Erdi murmurikatuz, kantatzen du : "Goizean goiz jeikirik". Leihotik so eginez*) Te, Mixel tindatzailea ! Hori ere zurubi gainean... (*Oihuz*) Mixel, huhu !... (*Hiru aldiz, oihu bera botatzen dio, aldi bakotx bere burua gordez... Gero, lurrean etzanik ematen da, zurubitik erori balitz bezala eta intzirinka lotzen*)

AMA . - (*Agertuz*) Zer duzu haurra ! Zer gertatzen zaizu !

ROXALI . - Ai, ai, ai, ama ! Ai, ai, ai !

AMA . - Gaixo haurra, bainan, nun hartu duzu min ?

ROXALI . - Ez dakit, ez dakit ! Denetan dut min ! Ai, ai, ai, ama !

AMA . - (*Gibel mazela torratuz*) Denean ?... Bainan, xuxen, nun duzu min ?

Hemen min duzuia ?

ROXALI . - Bai, hor ere min dut... Ai, ai, ai !

AMA . - Hor ere ? Eta bertzerik, nun ? Buruan hartu duzuia kolperik ?

ROXALI . - Ba, hor ere ba !... Ai, ai, ai !

AMA . - Ez da ba nehun odolirik ageri !

ROXALI . - Ez... Buru barnean hartu dut kolpea.

AMA . - Buru barnean ?... Ale, xuti zaite ! Ekazu eskua !

ROXALI . - Ez ama !... Ez !... Ai, ai, ai !
AMA . - Ez zaitzake ba hola egon ! Ale, lot zaitte neri !
ROXALI . - Ama, ni ez hunki ! Beharbada bizkar hezurra hautsia dut... Ba, ba, segur hautsia dut. (*Azkarki nigarrez*) Ba, hala dut ! Ama, hilen naiz !
AMA . - Ez dakit ba nik zer egin ! Fotoila hurbilduko dautzut ! Ahal bezain polliki, hortan jarriko zaitut !
ROXALI . - Ez, ama, otoi ez ! Aa, eskualde bat dena hozten ari zait ! Hilen naiz, ama !... Horra... hiltzen ari naiz !
AMA . - Bakea emazu, haurra ! Eta zato hunat, fotoila gainerat !
ROXALI . - Ez ama, ez ! Zuk ez duzu aski indarrik ni hortan ezartzeko !
AMA . - Hola ez zaituzket ba utzi !
ROXALI . - Ekazu hunat gizon bat, ni altxatzeko ! Gizon azkar bat !
AMA . - Norat nahi duzu gizonketarat joatea, tenore huntan ?
ROXALI . - Hor duzu Mixel tindatzailea.
AMA . - Mixel tindatzailea ? Nun ?
ROXALI . - Hor ari kanpoan, etxe tindatzen !
AMA . - Bon, bon ! Galdetuko diot hel dadien. (*Ateratzen da. Roxali bakarrik. Xutitzen da bere burua apaintzeko eta berriz, lehen bezala etzaten, erakusterat emanaz nahi duela Mixel, bere etzan moldeaz tentatu*)
AMA . - (*Sartuz Mixelekin*) Horra, Mixel gaixoa, ez dakit zer gertatu zaion Roxaliri. Zurubi gainean ari zen lanean. Erori da eta ez omen daiteke bakarrik altxa. Laguntzale azkar bat behar omen du hortako.
ROXALI . - Ai, ai !... Min dut !... Min dut denetan.
AMA . - Bien artean ezarriko dugu fotoilaren gainean. (*Ama lotzen zaio zango aldetik*) Zu, Mixel, lot zakizkio otoi buru aldetik !
ROXALI . - Ai, ai, ai !... Ez, ez !... Ez hola !
AMA . - Nola ba ?
ROXALI . - Ez dakit !... Bainan, ez hola !
AMA . - Bon, Mixel, alda gaiten lekuz. Ean ba altxatuko dugun, zu zangotik lotuz eta ni burutik ! (*Lotzen dira*)
ROXALI . - Ai, ai, ai !... Ez... Ez... Geldi... geldi otoi !
AMA . - Nola nahi duzu ba lot gaiten ?
ROXALI . - Zuk, ama, aski duzu fotoila gogor atxikitzea... Ai, ai, ai !... Eta zuk, Mixel, har nezazu, ahalaz eztiki zure altzoan... Ai, ai, ai ! Zure beso bat pasa zazu hementxetik ! Hola ba !... Bertzea, hortxetik... Ai, ai, ai !... Ni lotuko naiz zure lepoari. (*Mixelek altxatzen du Roxali eta Roxalik, luzarako Mixelen altzoan egoiteagatik, amari fotoila, bi aldiz aldarazten dio*) Ez hola fotoila, ama !... Bo, ez hola ere !... Hunarat itzul-azu ! Hola, hola ba !
MIXEL . - (*Roxali pausatuz*) Ez dautzuta sobera minik egin !
ROXALI . - Ez... Milesker, Mixel... Beharrik hor zinen... Bizia salbatu dautazu !
AMA . - Gizon besoak alabainan, emazteneri nausi !
ROXALI . - O ama, Mixeli emozu zerbait edaterat !
AMA . - Zer hartuko duzu ? Arno xorta bat ? Edo, nahiago zinuke kopaño bat ?
ROXALI . - Ho, ama ! Egiozu kafe presa on bat ! Eta, nik ere hartuko dut, horrekin batean... Bihotza arras joa baitut, uste dut on eginen dautala.
AMA . - Bon, ontsa da... Eginen dautzuet kafea bientzat.
MIXEL . - Haatik, nik lanerat laster joan nahi nuke.
AMA . - Joanen zira... Berehala zerbitzatuko zaituztet. (*Ateratzen da*)

ROXALI . - Nausiari aski diozu erraitea nola deitu zaitugun. Ukanen ahal du aski bihotz, konprenitzeko, ezinbertzez duzula zure lana utzi ! Ez dakit zer bilakatuko nintzen, zu ez bazina hor izan.

MIXEL . - Izanen zen ba bertze bat ni ordaintzeko.

ROXALI . - Ez aise. Ez baitu nornahik zure beso-aira goxoa. (*Eskuak hartzen diozkala*) Eskuak ere biziki leunak dituzu.

MIXEL . - Hori, nekez ! Nere eskutako tinta ez da gero zuek ezpainetan ematen duzuen hura !

ROXALI . - Zer egiten duzu, heldu den igandean ?

MIXEL . - Ez dakit !... Ez dut oraino hoinbertze pentsatu !

ROXALI . - Joaiten bagina biak balerat !

MIXEL . - Ez aise ! Ez baitut oto permisarik.

ROXALI . - Oto permisarik ez ? Zergatik ?

MIXEL . - Polizak kendu daut hilabete batentzat, lasterregi nindoalakoan.

ROXALI . - Eta egia zena, lasterregi zindoazela ?

MIXEL . - Ba zera ! Hori izan da mendekio bat ! Frantximent batzuekin kalapitan ari izanak ginen. Frantximent horiek, ez zezaketen jasan gu euskaraz mintzatzea eta euskaraz kantuz aritzea. Erran diotegu zoazela nahi bazuten Pariserat, hangoen manatzerat, bainan Euskal Herrian gu ginela nausi.

ROXALI . - Eta, horrengatik dautzua permisa kendu ?

MIXEL . - Ez... Bainan poliza jin zen eta guri, euskalduneri jazarri. Gu bezalakoengatik, omen dira gaurko saltsa guziak, hemen gaindi. Ihardetsi ginieten, ez baziren hemen ontsa, aski zutela, hek ere, Pariserat joaita... Orduan, begitan hartu naute eta horra zergatik, permisa kendu dautaten.

ROXALI . - Ustelak !... Joan-eta, nik ere erranen diozkatet bi hitz... Nik ere, zuk bezala maite dut gero Euskal Herria !

MIXEL . - Horiekin ez duzu partidarik irabaziko.

ROXALI . - Ikusiko dugu norentzat izanen den azken tantoa... Bihar berean joanen naiz zure permisa galdetzerat.

MIXEL . - Berdin du etxetik ez mugitzea. Sudurrerat irri eginen baitautzute !

ROXALI . - Neri irri ? Ageri da ez nauzula ongi ezagutzen ! Lot ditela neri trufaka ! Sartuko diozkatet ba nik trufak, muntatuko diotedan saltsaz !

AMA . - (*Sartuz*) Huna kafea... Zuk, Roxali, errazu nola nahi duzun apailatzea hunen edateko.

ROXALI . - Utz nezazu nere gisa, ama. Apailatuko naiz Mixelekin.

AMA . - Nahi duzun bezala ! (*Ateratzen da*)

ROXALI . - Otoi, Mixel, har nezazu gerritik eta altxa nezazu, hobekiago jar nadien. (*Mixekek laguntzen du. Roxali mila mainekin, tink lotuz Mixeli*) Hola ba !... Oraino ere berriz ! Bertze indarño bat... Ean ekazu eskua !... Ho, zer esku goxoa !... Burua apaila atazu hobeki... Ez hola... Hola ba !

MIXEL . - Bon, ontsa zirea orai ?

ROXALI . - Ba, Mixel, biziki ontsa... Zu bezalako eri laguntzale bat, onart nezake bizi guzikotz.

MIXEL . - Oas, hemen nago, lana utzirik... Banoa, kafea bi hurrupez edan-eta !

ROXALI . - Baduzu astia, Mixel. Ezar-atzu otoi bi azukre nere kafean... Eta ikusiko duzu nik oto permisa ardietsiko dautzudala. Eta gero joanen gira bi-biak balerat.

MIXEL . - Erraitea errex da.

ROXALI . - Otoi higituko duzuia nere kafeko azukrea ?... Ongi urtua maite dut. *(Mixelek higitzen du Roxaliren kafea)* Eta, bala ondoan, buruz buru afalduko dugu. Hola ordainduko dautzut hunat etorriz, galdu duzun irabaz-saria.

MIXEL . - Azukrea urtua da... Huna zure kafea.

ROXALI . - Otoi behar nauzu lagundu horren edaten. Aski dautazu esku batez burua altxatzea eta, bertzeaz, kikera ezpainetarat hurbiltzea. *(Mixelek galdegina obratzen du. Roxalik bi hurrupen ondotik)* Orai zuk ! Zuk ere edan-azu hurrupa bat nere kikeratik.

MIXEL . - Nik badut hor nere kafea !

ROXALI . - Ez... Nerea hobea da... Ale, hurrupaño bat, neri atsegin egiteko. *(Ematen dio edaterat)*

MIXEL . - Bon beraz ! *(Edaten du)*

ROXALI . - Eta orai, zuk neri ! *(Mixelek ematen dio edaterat)* Otoi emekiago !... Lasterregi edan kafeak ez du gero onik uzten. *(Edaten du)* Ha, milesker... Orai nik zuri azken hurrupa. *(Nardatua Mixelek husten du kikera klikako batez)* Ho, zoin fite edaten duzun !

MIXEL . - Bon, lanerat joan behar dut. *(Bere kikera husten du bi hurrupuz)*

ROXALI . - Hori duzuia kafea edatea ?... Neretzat, hori da kafea irestea.

MIXEL . - Berdin du... Bon, oraikoan banoa.

ROXALI . - Ho, ez zira joanen kopaño bat hartu gabe !

MIXEL . - Ez, ez dut koparik nahi... *(Abiatzen da kanporat)*

ROXALI . - Otoi behar nauzu lagundu xutitzen. Nahi zaitut ateraino segitu.

MIXEL . - Dituzun zauriekin, hobe duzu ez mugitzea.

ROXALI . - Ez... Kafeak on egin daut. Ikusiko duzu nola kurrituko dudana... Har nezazu gerritik. *(Mixelek hartzen du gerritik)* Ale, goazen.

MIXEL . - *(Ate ondoan)* Bon, orai uzten zaitut.

ROXALI . - Ez oraino... Ho, hain atsegingarri izan zira neretzat ! *(Leporat jauzi egirik, musu bat emaiten dio)*

MIXEL . - *(Ez dakiela zer egin)* ... Bon, agur ! *(Ateratzen da)*

ROXALI . - *(Kanpoari mintzo)* Eta igandean, jinen naiz euskal kolorez arropaturik... Xuri, gorri eta ferdez !... Agur !... Igande artio. *(Agur goxo batzu igortzen diozka eskuz eta esku musuz... Gero, xoria bezain arin, euskal dizka bat itzultzen du, haren kantua berak kantatuz)*

AMA . - *(Sartuz)* Jes !... Ni orai mirikuketarat abian bainintzen, ez duzuia gehiago minik ?

ROXALI . - Ez ama... Joan zait mina... Mixelek sendatu nau.

AMA . - Hauxe mirakuilua ! Bertzaldi bateko jakitea on da, Mixelek badauzkala holako ahalak.

ROXALI . - Ama, zer diozu Mixelez ?

AMA . - Mutil zintzoa da eta langilea.

ROXALI . - Eta ez dakit ohartu ziren... Frantsesa badakielarik ni baino hobeki, beti euskaraz mintzo da, nerekin ere.

AMA . - Ba ohartua naiz. Eta ere euskara garbia mintzatzen duela, sigi-saga frantses lerro batzu bere solasetan sartu gabe, oraiko hainitz gaztek egiten duten bezala.

ROXALI . - Hortakotz behar dut erosi euskal gramatika bat, nik ere euskara garbia mintzatzeko.

AMA . - Zuk euskal gramatika ! Segur naiz, zoko batean ezarri-ta, ez diozula sekulan so bat ere emanen !
ROXALI . - Ikusiko duzu, ama... Eta orai, joan behar dut poliz-etxerat.
AMA . - Poliz-etxerat ? Zertarat ?
ROXALI . - Mixeli, gaxtakeriaz, kendu baitiote oto permisa, behar diotet galdatu hura itzul dezaten.
AMA . - Eta nola ezetza segura baituzu, gero zer egingen duzu ?
ROXALI . - Burutik behera zernahi erranen diotet... Hori behingoan.
AMA . - Gaixo xoxola zu ! Uste duzuia auzia irabaztea horien kontra ?
ROXALI . - Ez badut auzia irabazten ere, bederen leporaino nardatuko ditut.
AMA . - Ez gaitzatela beti gu, familiakoak, narda, zure ixtupakeriengatik.
ROXALI . - Nere familiak ez du deus ikustekorik nere eginkizunetan. Oroit zaite, ama, nere buruaren jabe izaiteko adinerat heldua naizela.
AMA . - Ba, ba. Oxtian ere adinerat heldua zinen, zurubitik erortzean. Bainan, halere zure amaren beharretan.
ROXALI . - Jes ! Ez ote da ama baten egitekoa, bere haurren laguntzea ?
AMA . - Bai, bainan zuri da haurrarena ez egitea, adindunen lerroan sartua zirenaz geroz !
ROXALI . - Ez zaite kexa, ama ! Aski haundi naiz, nik urratuen, neronek peraxatzeko !
AMA . - Ikusiko dugu ! Agian ba !

OIHALA

BIGARREN GERTALDIA

Joka-lekua : Poliza bulego bat. Kankail eta Pollit, erdi lo.

KANKAIL . - Zonbat orenak dira ?
POLLIT . - Hamekak.
KANKAIL . - (*Inarroska*) Oraino oren bat hemen egoiteko.
POLLIT . - Beharrik, aperitifa on batek atzarriko baigaitu apur baten buruan. Lasterka leher egin arazi gaituzte atzo arratseko arraboslari horiek !
KANKAIL . - Nor ziren ?
POLLIT . - Bo, nik uste betikoak !... Euskaldun banda hori !...
KANKAIL . - Horiek ere beren politika... Irakurri duzuia kapitainaren azken paper hau ?
POLLIT . - Ez dut astirik izan... Zer dio ?
KANKAIL . - Azken uda huntan, gure kantoinamenduan, izan omen dira ehun eta zazpi ohointza... Bederatzi ohoin bakarrik harrapatuak ! Dionaz, harrapatu gutiegi omen da.
POLLIT . - Aski dauku hortarako laguntza emaita. Hor ditugu zaintzeko oto gidariak, mozkorrak, kanpotiarrak, drogatuak, gaxtagin mota guziak, zakurrak,

pottokak eta nik dakita zer ! Nola nahi duzu burutze egin ? Eta gainerat, hor ditugu orai, gu nardatzeko, euskaldun gazte horiek ere !

KANKAIL . - Kapitainak dio leuntxago jokatzeko horiekin.

POLLIT . - Leuntxago ? Zergatik ez da goizago mintzatu ?

KANKAIL . - Beren etxean direla-ta, egun batez, gaurko politika itzul daitekela-ta, zer gerta ere, ez horiekilako karta guziak erretzeko !

POLLIT . - Zuk uste duzuia euskaldunek ukanen dutela, egun batez, berengaintasuna ?

KANKAIL . - Nork daki biharko berri ? Zure adinean, ni, Afrikan nintzen polizgizon. Orduan, hango gazteak, gaur hemengoak bezalatsu zabilzan.

BITOR . - (*Presatuki sartuz*) Mugi, jaunak, mugi ! Otoa, etxeko atetik ebatsi dautate !

KANKAIL . - Etxeko atetik !

BITOR . - Ba, duela oren laurden bat. Hortakotz mugi. Lehenbailehen ezar trabak inguruko bide guzitan !

KANKAIL . - (*Deskantsuki paper bat hartuz*) Bon, izkirioz hartuko ditugu zure erranak. (*Mintzatuz, izkiriitzen du*) Gaur, abendoaren hamazazpia, goizeko hameka ordutan, gizon bat jin da gure poliz-bulegorat. (*Bitorri*) Nola dituzu zure izen-deiturak ?

BITOR . - Bitor Kalpatzar.

KANKAIL . - (*Izkiriatur*) Bitor Kalpatzar.

BITOR . - Bainan, otoi jauna, mugi zaite !

KANKAIL . - Zoin lekutan bizi zira eta zer lanetik ?

BITOR . - Oihal saltzale naiz, Errepublika karrikaren zazpian.

KANKAIL . - (*Izkiriatur*) Errepublika karrikaren zazpian, oihal saltzalea. Bon ontsa da... Beraz oto bat ebatsi dautzute ! Noiz, nun eta nork ?

BITOR . - Nik dakita nork ? Duela oren laurden bat, joan dautate etxe aintzinetik.

KANKAIL . - (*Izkiriatur*) Otoa ebatsi diote bere etxe aintzinetik, hamekak laurden gutitan. Ebaslerik ez du ikusi. Ori, emazkitzu zure otoaren seinaleak.

BITOR . - Fiat, lau jarlekutakoa, urdinxka, K.4. ehun eta...

KANKAIL . - Emeki otoi, emeki !... Utz ezadazu izkiriatzeko astia ! Erraiten duzu beraz (*izkiriatur*) Fiat, lau lekutakoa, urdinxka... Zer numerotakoa ?

BITOR . - K.4. ehun eta hogoi, hirurogoita lau.

KANKAIL . - (*Izkiriatur*) K.4.120-64... Eta orai, mintza gaiten paperez !

BITOR . - (*Kexu*) Bainan, zer demontre, jauna ! Ez naiz hunat etorri paper zirrimarratzerat, bainan ohoin bat arrasta dezazuen galdatzerat !

KANKAIL . - Otoi, ez gaitezela kexa, jauna ! Nahi nuke oraino jakin, ebatsi otoa norena zen eta nun aseguratua. Ekarri dituzuia karta grisa, permisa eta asegurantzako papera ?

BITOR . - (*Haserre*) Ez, ez ditut ekarri ! Nork debru pentsatu behar zuen hoinbertze paperen beharretan zineztela, ohoin bat harrapatzeko ?

KANKAIL . - Ohointza da, jauna, jabetasuna ostikatzea.

BITOR . - Badakit segur hala dela... Ez naiz hunarat etorria horren ikasterat.

KANKAIL . - Jabetasuna ostikatua izan den jakiteko, baitezpadako da jakin dezagun nor den jabea.

BITOR . - (*Haserre*) Erraiten dautzut jabea ni naizela. Nik dudala ostiko bat ukan. Eta galdatzen dautzut ostikoka ari zaitezen, ez jabeari, bainan ohoinari.

KANKAIL . - Ezti zaite, otoi, jauna ! Gure egiteko lehena da beti, segurtatzea ohointza bat izan dela. Segurtamen horren ondotik eta... bakarrik horren ondotik... gira entseatzen ohoina harrapatzerat.

BITOR . - Eta beraz orai, zer egingo duzu ohoina harrapatzeko ?

KANKAIL . - Berehala huntan, fitsik, jauna, fitsik !

BITOR . - Zer !

KANKAIL . - Zer nahi duzu egin dezagun ? Ez daiteke lanik egin, gizonik gabe... Nun ditugu gizonak ?

BITOR . - Gizonak dituzueia eskas ?... Bizkitartean, edozoin minixtro txar jiten delarik hunarat, bideak garreia ahala kaxketadun muntatzen dituzue ! Zer da komedia hau ?

KANKAIL . - Gure erreglamendua da hola... Badakizu, gu ez gira manatuaren mutil batzu baizik.

BITOR . - Zer egin behar dut beraz orai ?

KANKAIL . - Orai ? Zure aldetik ibil zaite miaka, zure otoa nun aurkituko duzun. Gure aldetik, begiak erne atxikiko ditugu. Eta, denborak erakutsiko du zertarat helduko giren.

BITOR . - Beraz, arras debaldetan etorri naiz hunarat !

KANKAIL . - Beharbada ba eta beharbada ez !

BITOR . - Jakin izan banu ! Ez nintzen segur hunarako ! Agur ! (*Ateratzen da*)

KANKAIL . - Agur !

POLLIT . - Harriturik nago nola hoinbertze xehetasunetan sartzen ziren, bi hitzez trenkatzeko orde auzilari horren kexua.

KANKAIL . - Zergatik emenda, goxa daiteken zauria ?

POLLIT . - Nik, gure ofizioari, goxamena baino larderia, hobeki joaki zaiola, iduritzen zait.

KANKAIL . - Goazen lehenik elez eta, heien hutsean, armez.

POLLIT . - Neskaxa bat heldu zaigu. Ez da goizegi, hoinbertze asunen artetik, lore bat agertzen baita noizbait hunarat. (*Atea jotzen dute*)

KANKAIL . - Aintzinat !

ROXALI . - (*Agertuz*) Agur, jaunak !

BIEK . - Agur, andere gaztea.

KANKAIL . - Sar zaite ! Zerk zakartza hunat ?

ROXALI . - (*Ilunki*) Jauna, gertatzen zait gaitzeko nahigabe bat.

KANKAIL . - (*Keinu eginez Polliti*) Jaun huni agert-zkitzu zure arrangurak !

POLLIT . - Zer nahi zinuen gureganik ?

ROXALI . - Atzo arratsean, mutil bat arrastatu duzue eta oto permisa kendu diozue hilabete batentzat.

POLLIT . - Merezi zuen bezala... Eroa bezala baitzoan bere otoa... Eta gero, anderea ?

ROXALI . - Gertatzen dena da, mutil hori dela nere gizongaia.

POLLIT . - Ha ! Zu zinena harekin otoa, arrastatua izan delarik ?

ROXALI . - Ez... Ez nintzen ni !

POLLIT . - Bizkitartean, mutil horrek erran daut, sahetseko lagunarentzat, bere emaztegaia zela.

ROXALI . - Polizak ez du sartzerik gure arteko gorabeheretan.

POLLIT . - Gu zertan sartu beharrez, jina zira ba hunarat ?

ROXALI . - Nere gizongaiak, oto permisa arras beharrezkoa du, lanean erabiltzeko.

POLLIT . - Bai, eta ere gu nardatzeko.

ROXALI . - Nere gizongaiarentzat, otorik ez ukaitea, diru galbide handi bat da.

POLLIT . - Eta guretzat, bake handi bat.

ROXALI . - Badakizu zonbat xahupide dituzten ezkontzerat doatzinek !

POLLIT . - Permisa kenduz, ezantzari emaiten diozuen dirua, eskutan geldituko zaizue.

ROXALI . - Ezantza ez dugu debaldetan erretzen, baina gure beharren zerbitzuko.

POLLIT . - Ba, eta maizago, bestan eta triguan erabiltzeko.

ROXALI . - *(Bizi-bizia)* Noiz ikusi gaituzu, gu, triguan erabiltzen ?

POLLIT . - Barda arratsean azkenik, arramantzaka hor ibili baitzirezte, zuek bakarrik nausi bazinezte bezala hemengo ostatu eta plazetan !

ROXALI . - *(Hemendik aintzina, kalapita doala emendatuz)* Ba, hemengo gazten zafartzeko hobeak zirezte, zuek ere, ohoinen arrastatzeko baino...

POLLIT . - Gure arropa errespetatuko duzu gero, eta hanbat gaxto zuretzat.

ROXALI . - Zuen arropa errespetatzen dut, baina ez horrek tapatzen duen ustelkeria !

POLLIT . - *(Izigarriki kexu)* Zer ! Gu ustelak ! Zato hunarat berehala preso. *(Nahi diozka eskutan gateak eman)*

ROXALI . - *(Gateak urrunduz)* Neskaxeri jazartzeko hobeak zirezte ba, mandileri baino !

KANKAIL . - *(Pollit lagunduz)* Ale, komedia guti gurekin. *(Borroka bat muntatzen dute)* Gateak eta preso !

ROXALI . - Alfer tzarrak, zuek ! Gutaz baliatuz bizi zirezten zorriak !

POLLIT . - Mari mutiko piltzarra ! Zakur uhar zikina. *(Eskuak gatetan ezartzen diozkate. Roxalik Polliti ausiki alimale bat egiten dio ipurditik. Pollit izigarriko oihutan)* Ai, ai, ai !...

KANKAIL . - Zer duzu ?... Zer duzu ?...

POLLIT . - Ipurditik ausiki egin daut !... *(Lotzen da Roxaliri iletarik tiraka eta nahi liozke paso batzu eman)* Urdain pozoinatua !

KANKAIL . - *(Polliti eskua hartuz, keinu egiten dio, ez dezan jo Roxali)* Min hainitz egin dautzuia ?

POLLIT . - Ez duzuia ikusten odola heldu zaidala !

KANKAIL . - Zu neskaxa, preso !... Ale, preso !... *(Roxalik alegia flakatua, bere burua erortzerat uzten du)*

KANKAIL . - Ha deubrua ! Ongi amonatzeko gaitu !

POLLIT . - Ziminokerian ari da gu enganatzeko ! Emotzu bizpahiru zaflako eta berebaitaratuko da !

KANKAIL . - *(Pultsoa ikertuz)* ...Kasu eman dezagun nola gabiltzan !... Neskaxa bat, bi gizonen artean, auzi gaxtoa guretzat. Zernahi gerta ere, mirikua berehala deitzen dut. *(Telefonatuz)* Jakinputz !... Jaun mirikua !... Bai ni bera... Nahi nuke hunaraino jiten bazina. Berehala ba... Ba, bi urratsetan zirenaz geroz !

POLLIT . - Odola ez zait gelditzen !

KANKAIL . - Harri berarekin bi xori, aski diozu zure mina ere erakustea mirikuari.

POLLIT . - Miriku zozo hortan nik fidantzia guti daukat.

KANKAIL . - Kentzen diozkat gateak neskaxa huni, ez baita gomeni mirikuak hola estekatua aurki dezan. (*Kentzen diozka*)

POLLIT . - Ez ahal da bederen errabiatua, hola lotzeko ausikika, zakurra bezala !

KANKAIL . - Hortakotz ere, hobe duzu lehenbailehen zure burua mirikuaren eskutan ezartzea. (*Roxaliri, ileak antolatzen diozka*)

POLLIT . - Izan dea, egun hautan, deus arrangurarik zakur errabiatueri buruz !

KANKAIL . - Ez preseski... Bainan batere ez dakigu zer ziren eta zoin, atzo, hoinbertze ardi xahutu dituzten zakur horiek.

POLLIT . - Deus onik ez dut igurikatzen. Ez dakit, ez dakit, bainan ni beldur oro, zakur beren ondorioa dela... Errazu, diotenaz, errabiadunek ez omen dute ura ikusi nahi ere... Eskaintzen banio ur xorta bat...

KANKAIL . - Eskaint-ozu !

POLLIT . - (*Ateratzen da eta berehala sartzen, baso bat urekin... Ura nahi lioke Roxaliri edan arazi, bainan hunek ahoa tink hetsia beiratzen du, orro batzu adieraziz*) Ha, ez du edan nahi !... (*Etsitua*) Segur bat eta erdi naiz, errabiatua dela !... Hau ere beraz, neretzat zen !... (*Ateratzen da, apur baten buruan berriz sartzeko*)

KANKAIL . - Huna Jakinputz, jaun mirikua... Aintzinat jauna, aintzinat !

JAKINPUTZ . - Agur, aintzindari jauna !... Zer gertatzen da hemen ?

KANKAIL . - Neskaxa hau, zombait galde egiten giniokala, flakatu zaigu !

JAKINPUTZ . - (*Roxali ikertuz*) Eman diozueia kolpe gaxtorik ?...

KANKAIL . - Ez jauna, doidoia zartzaillkatu bakarrik.

ROXALI . - (*Intzirinka*) Ez da egia !... Jo naute.

KANKAIL . - (*Haserre*) Gezur ziria hori !...

ROXALI . - Eskuak, gatez estekatu dauzkitet.

KANKAIL . - Ba, ezin atxiki baiginuen bertzela. Zalapartaka lotu zaigu eta nere poliza lagunari ipurditik ausiki egin dio...

JAKINPUTZ . - Ipurditik ausiki ?

POLLIT . - (*Ilun*) Ba jauna, ba... Horra odola... Behar nauzu, ni ere ikertu, hunen ondotik.

JAKINPUTZ . - Kontent naiz, arras kontent. Nere jakintza berezia da psikanaliza eta gertakizun hau da neretzat interesgarriena !

POLLIT . - Ez da bederen errabiatua ?

JAKINPUTZ . - Hori ere, daitekena da. Bainan goazen urraska. Freud, gu, psikanalisten nausi handiak dio, edozoin gaitzen ukaldiak behar direla ikertu "ante crisis", "in crisis" eta "post crisis"... Erran nahi baita gertatu aintzin, gertatzean eta gertatu ondoan... Nik jakin nahi nukena da nola zen neskaxa hau "ante crisis", hunat jin aintzin.

KANKAIL . - Nik ez dakit, bainan hunat etorri da, oto permisa bat baitezpada behar zuela. Nola ez baiginion eman nahi, zainetakoek hartu dute.

POLLIT . - Ba, bainan, beharbada ere, zakur errabiatu zonbaitek ordukotz ausikia zuken.

JAKINPUTZ . - Beraz, ez dakigu xuxen zergatik neskaxa hau gertatu den "in crisis". Edo errabiatua delakotz, edo oto permisarengatik... Beraz, emaiten badiozue bere oto permisa, gauzak argituko dira.

KANKAIL . - Nolaz hori ?

JAKINPUTZ . - Hortan dena bururatuko baita eta segur izanen baigira, ez dela errabiatua. Aldiz, errabiatua balinbada, berriz ere ausikika lotuko da.

KANKAIL . - Beraz, zuk diozunaz, oto permisa behar diogu itzuli.

JAKINPUTZ . - Hori zuek ikus... Nik, nere ikusbidea agertu dut, eta orai, ez dut joaitea bertzerik...

POLLIT . - Eta ni ? Ni, ez nauzu ikertu !...

JAKINPUTZ . - Hori ere hala da... Zato nere etxerat... Han artatuko zaitut.

(Ateratzen ari direla, Bitor sartzen da, hats hantua)

BITOR . - Mugi, jauna, nere otoa aurkitu omen dute, bide hegian, arbola baten kontra xehatua...

KANKAIL . - Ha, ikusten duzu ez ginaudela zure otoa zaindu gabe !

BITOR . - Zer ?... Nahi nuke jakin zertarik duzuen nere otoa zaindu ?... Barneko errota eta puska guziak, ebatsiak omen dira...

ROXALI . - Otoi, Bitor, erranen diozua nere amari, hunarat etor dadien nere bilarat !

BITOR . - *(Ohartuz Roxali ere han dela)* Zu hemen, Roxali ?... Zer ari zira hemen ?

KANKAIL . - *(Haserre gorrian Roxaliri)* Zuk bakea, eta berriz ere, bakea guri !
(Eskutarat oto permisa aurtikiz) Ori zure oto permisa zikina eta kanporat hemendik !

ROXALI . - *(Ateratuz, azpi-irri maltzur batekin)* Agur Bitor !

KANKAIL . - Bon, behar ditut paperean ezarri, zuk eman xehetasunak... Beraz zinion zure otoa harrapatua izan dela... Nork, nun eta nola ?...

OIHALA

HIRUGARREN GERTALDIA

Joka-lekua : Kanpo alki baten ganean, amoroski jarriak dagotzi Mixel eta Lili.

MIXEL . - Plaza huntako jarleku guziak hartuak dira. Ni beldur ez digutela alki hau, guretzat bakarrik, luzaz utziko.

LILI . - Agian, hortxetako gizon piltzar hori, ez zaigu etorriko jartzerat, gure ondorat.

MIXEL . - Etortzen bada ere, jasan beharko, xutik ez egoitekotz... Ba, oxtian erraiten nautzun, nola Roxalik harritu nauen... Ez nuen uste holakoa zela... Laparra bezala lotu zait... Zubitik eroria zela-ta, deitu naute altxatzerat... Biziki min omen zuen. *(Irriz)* Uste dut bere min larriena zuela, ni bere ondoan ukaiteko nahikundea.

LILI . - *(Maleziatsu)* Ba, eta zu kontensko ! Aitor-azu neri baino grazia gehiago aurkitzen diozula Roxaliri.

MIXEL . - *(Maleziatsu)* Ba, zu... Lili. Hura aldiz Roxali... Arrosa eta Lili.

LILI . - *(Eztiki matelan joz)* Itsusia zu !

MIXEL . - Eta zu, pollita !

LILI . - Eta Roxali, ez duzuia geroztik ikusi ?

MIXEL . - Ez bainan, erran zidan, gaur nahi zuela nerekin joan balerat eta ondotik, nerekin buruz buru afaldu !

LILI . - Eta zer ihardetsi zenion ?

MIXEL . - (*Irrino batekin*) Baietz ba, atsegin nukela, halako neskatxa pollit batekin ateratzea.

LILI . - (*Maleziatsu*) Zergatik etorri zira beraz niganat ?

MIXEL . - Ez baitzait agertu ere nere amorant xarmanta... (*Irriz*) Ta, nahitaez, lehengo xaharreganat itzuli behar !

LILI . - (*Zaflako ttipi bat emanez*) Ez dautzut gehiago kasurik eginen ! Itsusia zu !... (*Biak irriz, buruak hurbilduz... Orduan agertzen da Cloclo, bere buruarekin marmarikan, zigarro erren muturrak biltzen dituela lurretik*) Ez ahal da, herresta hori, jartzerat jinen gure alki huntarat !

MIXEL . - Jiten bada, goazen guretik, bakarrik bagina bezala.

LILI . - Ba, bainan nola jasan horren usaina ?

MIXEL . - Aski duzu, zuk duzun on hortarik gehixago ixurtzea eta ez dugu deus sendituko. (*Biak irriz*)

LILI . - Oas, gure lagunak han dabilta ba, orai, beren ototan, Jainkoak daki nun !

MIXEL . - Ba, neri ere Roxalik ardiestekoa zidan oto permisa. Baietz eta baietz, segur zen nere permisa ukanen zuela polizarenganik.

LILI . - Beharrik ez du ukan ; bertzela, han izanen zinen nonbait harekin.

MIXEL . - (*Irrino batekin*) Eta zu hemen, nigarrez eta jelosiaz urtua. (*Apur bat ixilik, Cloclori so*)

LILI . - Heldu zaigu gure ondorat gizon barrabas hori.

MIXEL . - Egin dezagun hor ez balitz bezala.

CLOCLO . - (*Beti bere buruarekin marmarikan, jartzen da, bi gazten ondoan. Jan nahi luke. Nonnahitik jan-edanak jaliz, bere apairua muntatzen du bere inguruan. Trago batzu, botoila tututik eginez, jaten lotzen da*) Bi musukari, nere lehen auzo... Bon, ar ditela musuka, hola aritzeak asetzen dituenaz geroz. Nik bertzerik behar diat asetzeko... Zardina zahar bat... Lukainka mutur bat hobe ! Gasna... Ogia... Arnoa... Ez duk hain gaizki nere janaldia !... Saka gezurrak, saka elgarri, amorosak ! Aski goiz, biziak salatuko dautzue egia ! Gaur musu-joko eta bihar mutur-joko ! Harako polizgizon asto harek, ez ahal naik hemen jaten ikusiko ! Bazakiat, hi, kaxketadun, ez dela haizu alki hunen gainean jatea... Ostatueta ere, ez ditek ba nere gutziarik ! Zer behar diat ba : Komunetarar joan, jateko ere ?

MIXEL . - So egizu ! Hortxetako polizgizon gazte horrek kendu daut oto permisa ! Ustel zikina !

LILI . - Guri so eta so dago. Zer ote du hola gu begiz iresteko ?

MIXEL . - Datorla dator auziketarat ! Ukanen ditu inbidoen edukiak !

LILI . - Otoi, Mixel, ez zaitela horiekin saltsan sar ! Badakizu holako gizonekin ez daitekela irabaz partidarik !

MIXEL . - Beti irabaziko dute, ez bazaiote nehor bihurtzen !

LILI . - Guri buruz heldu da ! Otoi, ez zaitela asalda, Mixel !

POLLIT . - (*Agertuz, Cloclori*) Errazu, zu ! Ez dakizuia debekatua dela jatea leku huntan ?

CLOCLO . - Nori zer kalte egiten diot nik, leku huntan janez ?

POLLIT . - Alki hau, deskantsatzeko leku bat da eta ez, jateko mahain bat. Ez zatzula narda hemen jarriak daudenak.

MIXEL . - Ez gaitu den gutienik nardatzen. Bada hemen, hau baino nardagarriagorik !

LILI . - (*Mixeli lotuz*) Otoi, Mixel !

CLOCLO . - (*Janez, Polliti mintzo*) Errak to, hi, ez banauk hire legearekin adorean, aski dautak amanda bat emaita. Dakikan bezala, sakelak diruz beteak ditiat eta berehala pagatuko haut...

POLLIT . - Ez zaitela gero nitaz trufa, zorritsu zikina !

CLOCLO . - Habil hire amarenganat, zorri kentzeko orraze baten bila. Harek baditik. Ez haut aitarenganat igortzen, ez baitakik nor den !

POLLIT . - Mihi madarikatua ! Nere arropa errespetatuko duzu gero !

CLOCLO . - Hik ere ba nerea... Nere zorriak utziz beren gisa.

POLLIT . - Bon, oren laurden bat emaiten dautzut leku hau husteko. Eta, ez baduzu obeditzen, otoa hartu-eta, preso sartuko zaitut. (*Ateratzen da*)

CLOCLO . - Hobe segurki. Teilatua eta jana urririk, ez zaitak usu gertatzen.

MIXEL . - (*Cloclori*) Ezagutzen duzuia polizgizon hori ?

CLOCLO . - Ba, xakur koxkor bat. Nausiek huiatuz geroz, saingatu behar.

MIXEL . - Ta, zer sainga meharrak !

CLOCLO . - Mundua hola duk ! Xakur horiek eta horien nausiek, mundu hau apailatu ditek beren gisan... Berak dituk jale, ta gaineratekoak horieri jan-fornitzale... Nola ez baitut zerbitzatu nahi horien mundua, hortakotz nauk bizi horien mundutik kanpo.

MIXEL . - Eta zure bizitzekoa nondik biltzen duzu ?

CLOCLO . - Ahal dudan tokitik, to... Gehienetan horien berenganik. Bainan nere aldetik, ez ditek deus ukaiten.

MIXEL . - Zer begi gaxtoa egiten dautzun polizgizon horrek !... Ori, pinta bat arno pagatzen dautzut, oiuhu egiten badiozu : Gora Euskadi !

CLOCLO . - Nola erran duk ?

MIXEL . - Gora Euskadi !

CLOCLO . - (*Ozenki, bi eskuz ahoa inguraturik*) Gora Euskadi !... Gora Euskadi !

POLLIT . - (*Agertuz, errabian*) Zer erran duzu ? Nork manatu dautzu oiuhu hori botatzeko ?

CLOCLO . - Zerak !... Hire kapitainak !

POLLIT . - Ixilik egonen zira gero, hemen politika saltsarik muntatu gabe !

CLOCLO . - Eta hi nork manatu hau, "Gora Euskadi", oiuhu egiterat ez uzteko ?

POLLIT . - Ez naiz ni politikan sartzen.

MIXEL . - Zergatik beraz duzu "Gora Euskadi" oiuhu egitea debekatzen ?

CLOCLO . - (*Mixeli*) Barka-zok gaizoari. Bere eskolan, hola dik ikasi.

POLLIT . - (*Haserre gorrian*) Hanbat gaxto zuentzat, nere bidean kausitzen bazaitzitet ! Jakin-azue presondegia ez dela egina arratoinentzat ! (*Ateratzen da*)

CLOCLO . - Ba, preseski, gauak freskatzen ari dituk. Hotelak ez ditiat maite, eta, fite, jaun horietarat joan beharko diat, ganbara eske.

MIXEL . - Ori anartean, hitzeman dautzudan pinta arnoaren saria.

CLOCLO . - Milesker eta hire zerbitzuko, nahi dukalarik, irabazi berean, lan bera egiteko. (*Apur bat ixilik*)

LILI . - Ho, Mixel, so egizu nor heldu den !

MIXEL . - Nor ?

LILI . - Horra hortxet Roxali. Guri buruz heldu da.

MIXEL . - Zertan ote dabila hemen ? Egin dezagun ezikusiarena.

ROXALI . - *(Agertzen da euskaldun koloretako arropez jauntzia... Ez dago bere zainen jabe. Urrundik, eztul batzu eginez, entseiatzen da han dela salatzerat. Nola bi gaztek ez baitote kasurik egiten, azkenean oihuz Mixel deitzen du)*

Mixel, o Mixel !

MIXEL . - Zer da ?

ROXALI . - *(Hotz eta motz)* Zato otoi hunaraino !

MIXEL . - Zu zato hunat !

ROXALI . - *(Ez daki zer egin)* Zure oto permisa hemen dut ! Oroit zaite nola hitzartuak ginen elgarrekin.

MIXEL . - Hitzartuak ? Zertaz ?

ROXALI . - *(Jartzen da Mixelen ondoan, Mixel dela bi nesken erdian. Emeki emeki Mixeli hurbiltzen zaio, bainan Mixel gero eta gehiago Roxalitik urrunduz joaiten da Liliri buruz)* Hitzartuak ginen, nik oto permisa ardiesten banuen, biak joanen ginela balerat eta gero, buruz buru afalduko ginuela.

MIXEL . - Nik ez dautzut holakorik hitzeman. Zuk ba atera zenituen holako solasak.

ROXALI . - *(Asaldata)* Zer ! Ukatuko duzuia zure besotan goxoki atxiki nauzula ?

MIXEL . - Nik, nere besotan hartu zaitut bakarrik, zure amak eskaturik, zu lurretik altxatzeko !

ROXALI . - *(Xutituz)* Ba, eta ukatuko duzuia musu ere eman dautazula ?

MIXEL . - Nik ez dautzut musurik eman. Zuk ba, niri, bat ebatsi.

ROXALI . - *(Errabian)* Ha, hola duka hire hitza atxikitzen... *(Oto permisa porroskatuz eta zangopilatuz)* Horra zer egiten dudan hire oto permisa... *(Liliri)* Eta hi, denen besotako oilo tzar piltzarra, zer uste dun ? Neri gizongaia ebatsita, lumarik galdu gabe aterako haizela ? *(Lotzen zaio iletik tiraka eta atzaparka)*

MIXEL . - Emeki gero, zu, ergel xoroa ! *(Pusako batez, botatzen du Roxali, alkiaren gainerat)*

POLLIT . - *(Lasterka heldu da)* Hep, hep ! Zer ari zirezte hola ? Preso, preso denak !

MIXEL . - *(Lili besotik hartuz)* Zato fite ! Goazen hemendik. *(Ateratzen dira)*

ROXALI . - *(Errabian alki gainean... Eskutan dauka, Liliren burutik hartu duen zerbait apaindura)* Zikina ! Ustela !...

POLLIT . - Oraino ere zu !... Zer dituzu manera horiek ? Ez zirea ahalge ?

ROXALI . - Arrasta-zkitzu hek !... Hek biak ! Hek, zuen kontrarioak dira... Ni zure aldekoa naiz !

POLLIT . - Zer, nere kontrako ala aldekoa ?

ROXALI . - *(Polliti leporat jauzi eginez)* Ba, ni zure aldekoa naiz... Ekazu musu.

Vive la Police Française ! *(Ausiki egiten dio mazelatik)*

POLLIT . - *(Orroaz)* Ai, ai ! Berriz ere ausiki egin daut !... Zakur errabiatu madarikatua !...

JAKINPUTZ . - *(Agertuz)* Zer da ? Zer gertatzen da hemen !

POLLIT . - Berriz ere ausiki egin daut, jaun mirikua ! Oraikoa, mazelatik !

JAKINPUTZ . - *(Roxaliri)* Zer ari zira hola, Roxali ?... Zer daukazu buruan ?

ROXALI . - (*Jarria, erdi nigarrez*) Nik maite dut polizgizon hori ! Hain maite dut nun jan nahi bainuke.

CLOCLO . - (*Irri karkailaz*) Polizgizon baten burua duzua jan nahi, neskaxa maitea ! Zer apetitua !

JAKINPUTZ . - Ha ikusten dut ! Dena garbiki ikusten dut !

POLLIT . - Ez da bederen errabiatua !

JAKINPUTZ . - Ez ! Orai segur naiz ezetz... Freud, gure nausi handiak dio : Errabiatua denak ez duela nehoentzat maitasunik. Neskaxa hunek zuretzat agertzen du maitasuna... Beraz ez da errabiatua.

POLLIT . - Zer du ba hola ausikika aritzeko ?

JAKINPUTZ . - Neskaxa hunek ez du errabia, bainan amodioaren errabia... Ez baita gauza bera.

POLLIT . - Nork ikusi du maitale bat ausikika aritzen maite duenari, odola jali arteraino...

JAKINPUTZ . - Dena da nondik egiten den ausiki... Gizonak baditu lau mazela : Bi behean eta bi gainean. Behereko mazeletan ausikitzen da etsaigoz... Gaineko mazeletan aldiz, amodioz.

POLLIT . - Eta, behereko eta gaineko mazelean ausikitzen zaituztelarik, zer erran nahi du horrek ?

JAKINPUTZ . - Horrek erran nahi du, zure kasu huntan, etsaigoa bihurtu dela amodio.

ROXALI . - (*Ahapetik*) Ba, nik maite zaitut !

CLOCLO . - (*Irriz*) Nik ere maite ditiat xingarra eta matel kailuak !

POLLIT . - (*Haserre Cloclori*) Zu ixilik, ez bainaiz ni jostagura ! Edo, hor berean, kalitzen zaitut gero !

JAKINPUTZ . - Otoi ixilik... Orai behar dugu makurbide hau xuxendu... Neskaxa hau da "in crisis"... Nere egitekoa da, nola kendu huntarik "in crisis" hori eta nola sortu "post crisis".

CLOCLO . - Aski diok zizari belarra emaita !

JAKINPUTZ . - Neskaxa hau sutan bezala da. Sua hiltzeko molde hoberena da kontra-sua piztea.

CLOCLO . - (*Su pizteko bat piztuz, bere zigarretarentzat*) To, nik emanen zioiat kontra-sua... Errak nondik !

JAKINPUTZ . - Neskaxa hunen kontra-sua, zu zira Pollit jauna. Zuri liteke neskaxa hunekin ez gobernatzea bortizki, bainan leunki, eztiki, solasak goxatuz. Ez dea hala, neskaxa ?

ROXALI . - (*Ahapetik*) Ba, ba, nik maite dut Pollit jauna.

JAKINPUTZ . - Hola denez geroz, xuti zaitte neskaxa, hurbil zaitte Pollit jaunarengat eta emozu musu goxo bat.

POLLIT . - (*Neskaxak musu ematen diola*) Zer ! Nitaz trufatzen zireztea ala zer !... Zer da komedia hau !

JAKINPUTZ . - Xo, Pollit jauna ! Ez zaitela hola bihur... "Post crisis" bidean arras polliki sartuak gira. Ez zazula hauts bide hori... Ale, ale... Eta orai, goazen hiruak hemendik, aperitifa bat hartzerat. (*Ateratzen da*)

CLOCLO . - (*Bakarrik eta irri karkailaz*) "In crisis", "Post crisis", ausiki handik, musu hemendik, gatu horrek badik bertze buztanik.

OIHALA

LAUGARREN GERTALDIA

Joka-lekua : Lehen gertaldikoa.

AMA . - Eta orai zer !

ROXALI . - Ez neri gehiago gizonik aipa... Denak berdinak dira. Denak, su berean erre behar litezken egurrak !

AMA . - Zertan zira Mixelekin ?

ROXALI . - Ezkontzerat omen doa. Ni baino nahiago du, zerri bazkatzen bertzerik ez dakien Lili tuntuna hori !

AMA . - Zoin gaxtoa ziren !

ROXALI . - Hala da eta ! Ez ote da zerri hazle baten alaba ?

AMA . - Eta, aipatu baitzinautan polizgizon bat, zertan zira harekin !

ROXALI . - Igorri dut antzara ferratzerat. Nik maite nuela erran-eta, beti bere poliz erreglamendua zidan aipatzen. Erreglamendua errespetatuz, behar omen nuen maitatu. Poliz jauntzian delarik, ez harenganat hurbildu.

Kantoinamendutik kanpo joan behar, harekin amodio urratsetan ibiltzeko, nik ez dezaket jasan hola, dena xifratua eta neurtua den amodioa.

AMA . - Bon, bon... Gazte zira ! Ez izan presatuegia ! Gaur ez bada bihar, aurkituko duzu zure gostuko senargaia !

ROXALI . - Zure betiko leloa da hori, ama ! Bizia luze dela... Behar dela ezkondu, oro ontsa pizatus... Hobe dela mutzurdin egoitea, ezkondu dohakabe bilakatu baino... Kontseilu horiek, ber balioa zuten zure gazte denboran ere ! Zergatik ba ezkondu zinen, hogoi urteak bete gabe ?

AMA . - Nik suerte ona ukan dut, senar on batekin erori bainintzen.

ROXALI . - Eta nik, zergatik behar dut ukan baitezpada suerte gaxtoa ?

AMA . - Zu ere, noizbait amatzen bazira, ni orai zuri bezala, mintzatuko zira zure haurreri.

ROXALI . - Ez du irriskurik.

AMA . - Zergatik ?

ROXALI . - Ezkontzari uko egiteko xedea hartua baitut.

AMA . - Zuk, ez ezkontzeko xedea hartu ? Noiz artio ?

ROXALI . - Otoi, ama, ez zaitela nitaz trufa ! Zintzoki mintzo naiz.

AMA . - Eta, ez ezkontzekotan, zer bideri lotu gogo duzu ? Ala komentuan sartzekotan zira ?

ROXALI . - Ba, seror egiteko xedea hartu dut. (*Ama irriz*) Otoi, ez irririk egin ! Ala zer ? Serora guziak ez ote dira, ni bezala, neskatxa gazte izan, arropa hartu aintzin ?

AMA . - Bai, bai, haurra !

ROXALI . - Eta seroretan badira ere, gaxtagin izanik, konbertituak.

AMA . - Bai eta ere !

ROXALI . - Ni, ez naiz gero, mutilekin nolana hizka ibili ! Nere burua beti errespetatzen dut gero !

AMA . - Baietz ba, haurra !

ROXALI . - Eta xedea hartua dut, ez sartzeko edozoin komentutan, bainan komentu zerratu batean... Hola, bakea ukanen dut gizonen aldetik ! Ez binaute gehiago ikusiko !

AMA . - Eta zuk ere ez, haiek !... Eta noiz-tsu izanen da zu komentuan sartzeko egun aipagarri hori ?

ROXALI . - Ez dakit oraino... Apur baten buruan jitekoak ditut hunat, serora superiora eta jaun omoniera, hortaz mintzatzerat !

AMA . - Bon, bon... Sar zaite beraz komentuan... Gerokoak gero... *(Ateratzen da)*

ROXALI . - *(Bakarrik... Jaunzten du matzi-zai bat... Mirailari behatuz, buruan ezartzen du oihalezko korona xuri bat... Haren gainetik, oihal beltz bat... Gerrian ezartzen du larruzko uhal bat, arrosario luze batekin... Gero, beti mirailari behatuz, harat eta hunat dabila, belaunikatuz, eskuak juntatuz eta holako serora jestu batzu eginez... Atea jotzen dute)* Aintzinat !

SERORA SUPERIORA . - *(Agertuz)* Jainkoak dizula arratsalde on, Roxali !

ROXALI . - Zuri ere bai, andere superiora. *(Superiorarekin dituen solasaldietan , Roxali agertzen da, jada seror apal bat balitz bezala)*

SERORA SUPERIORA . - Hauxe zer jauntzi bitxitan kausitzen zaitudan !

ROXALI . - Ba, orai beretik nahi diotet uko egin mundutiar arropa ergeleri !

SERORA SUPERIORA . - Hori ere zerbait bada ! Bainan, ez da aski arroparen aldatzea, munduari uko egiteko !... Beraz, serora bilakatzeko nahikundetan zira ?

ROXALI . - Bai, andere serora, Jainko onak hala nahi badu.

SERORA SUPERIORA . - Baduzuia asmorik, nola daiteken serora zerratuen bizia ?

ROXALI . - Ez dakit gehiegi ! Nik nahi dudana da Jainkoarekin bizi, mundutik bazter.

SERORA SUPERIORA . - Ba, bainan ez pentsa komentuan, bakarrik izanen zirela Jainkoarekin. Serora buruzagiak ukanen dituzu... On zirea heieri, apal eta ixil obeditzeko, berdin manatuko dautzutelarik laket ez zaizun edozer lan ?

ROXALI . - Ez da beti errex izanen !... Entseiatuko naiz.

SERORA SUPERIORA . - Zure lagun gehienak izanen dira adin puxka batekoak. Berdin batzu jitez bitxiuak edo mingostuak. On zirea horien jasaiteko eta maitatzeko ?

ROXALI . - Eginahalak eginen ditut.

SERORA SUPERIORA . - Komentu zerratuko erreglamendua da, zortzi oren otoitzeko, zortzi oren laneko eta zortzi oren lo egiteko. On zirea, egun guziz, zortzi orenez egoiteko, gogoz eta otoitzez, gure Jainkoa adoratzeko duzula ?

ROXALI . - Ez naiz hortan biziki entseiatu. Halere uste dut baietz.

SERORA SUPERIORA . - Komentuan dira denak batentzat eta bat denentzat. Ez zaizu haizu izanen deuseren jabe izaitea. Soineko arropak berak, ukanen dituzu, zortean tiraturik, izan ditene ala ez zure gostukoak.

ROXALI . - Gostako zait hortaratzea, bainan ez zait iduritzen ezin egina dela.

SERORA SUPERIORA . - Zure letra guziak izanen dira irakurtuak, bai igorriak eta bai ukanak. Bisita guziak ere neurtuak eta zainduak.

ROXALI . - Presondegian bezala beraz.

SERORA SUPERIORA . - Bai, Roxali, komentua da Jainkoaren presondegia. Horrarat sartzen da, ez gaxtagin zirelakotz, baina gaxtaginentzat penitentzia egiteko. Horko gateak, Jainkoarenak direlakotz, dira gate leun goxoak.

ROXALI . - Gateak ez ditut maite, baina entseiatuko naiz heien jasaiterat.

SERORA SUPERIORA . - Horra, haurra, zertarat joaiten den komentu zerraturat... Sakrifizio eta gurutzerat, Jainkoa zerbitzatzeko eta gizonen salbatzeko. Hortakotz on da komentuan sartu aintzin, zure gogoetak egin ditzazun.

ROXALI . - Zuk eman xehetasunekin, andere serora, badut nun zer pentsa.

SERORA SUPERIORA . - Nere iduriko behar zinue, komentuan sartu aintzin, urtetsu batez zure burua frogatu. Hemen bertan egon, baina serora bezalatsu biziz, ama obedituz, ixiltasun eta otoitzari jarraikiz, lanari ere bai. Mundukeriak bazterrerat utziz eta jendekin guti gurutzatuz.

ROXALI . - Ez da errex izanen munduan bizitzea, munduarekin harremanik gabe.

SERORA SUPERIORA . - Hortan zurekin ados nago. Hortakotz eginga da komentua ; mundu huntan bizitzeko, baina mundutik berex... Orain badakizu norat zoazin, komenturat sartuz. Eman zaite oso-osea Jainkoaren eskuetan. Harek igorriko daukitzu bere indar eta argi bereziak.

ROXALI . - Ontsa da, andere serora !

SERORA SUPERIORA . - Beraz, uzten zaitut... Noizean behin itzuliko naiz zueganat, ikusteko zertan ziren. Eta, egun guziz, otoitz egingen dut zuretzat.

ROXALI . - Badut segurki beharra. Milesker, andere serora.

SERORA SUPERIORA . - Ez da zer, Roxali. Bertzaldi bat artio !

ROXALI . - Ba, bertzaldi bat artio, andere serora. *(Ateratzen da... Roxali, jarririk, apur bat egoiten da burua bi eskuen artean eta gero, irri karkaila batzu eginez, amari oihuz)* Ama, o ama ! Zato hunat berehala !

AMA . - *(Agertuz)* Zer duzu haurra ? Baina zer duzu holako irritan ? Burua galdua duzua ala zer ?

ROXALI . - Ama, berehala ekazu edari goxotik ttotta on bat ! Eta, soineko arropa hau kendurik, behar dut berehala jauntzi nere armarioko mini zai airose.

AMA . - *(Edaria zerbitzatzuz)* Baina, ezti zaite, haurra ! Zer gertatzen zaizu ? Zer erran dautzu andere serora horrek ?

ROXALI . - Nik ez dakit nungo leize ziloan bizi den serora hori, baina dakidana da ez dudala nahi horrek aipatu bizimolderik.

AMA . - Beraz, ez zirea gehiago serora sartzeko xedetan ?

ROXALI . - Ez, ama, miletan ez ! Gisa hortako komentuan segurik ! Apur baten buruan, jaun omoniera jinen baitzaut, hari erranen diot nolakoa nahi nukerretzat komentuko bizia. Nik nahi bezala, har edo utz, ukanen du hautua.

(Badoa aldatzerat)

AMA . - *(Bakarrik)* Har edo utz !... Uste balinbaduzu orain hasiko direla zure neurriko komentu bat muntatzen ! Komentua, komentu da. Haietako dautzute erranen : Har edo utz ! Edo bertzela, behar litezke zontzat seroragai eta hainbertze komentu. Eta, zu zirenarekin, ez zinezake luzaz iraun, ez eta ere zeronek zuretzat muntatu komentu batean. Zu zira aldaxka gaineko xoria. Apur bat egoiten zira jokabide batean, baina apur bat baizik ez. Zure peko aldaxka jotzen duen lehen haizeak, bertze aldaxka baterat airatzen zaitu.

ROXALI . - (*Agertuz*) Bururatu dituzuia zure haize marmariak, ama !
AMA . - Zuretzat haize marmariak, bainan berez... egiak. (*Ateratzen da*)
ROXALI . - (*Mirailaren aintzinean apaintzen da mundutiarki, joan-jin batzu eginez, jada matzi-zaiekin ibili den bezala. Norbaitek atea jotzen du*) Aintzinat !
OMONIERA . - Agur, andre Roxali !
ROXALI . - Agur, jaun omoniera ! Zer diozu nere arropa huntaz ?
OMONIERA . - Zure arima, arropa hori bezain pollita balinbada, aingeru bat zirela.
ROXALI . - Uste nuen beltzuri eginen zinuela, seroragai bat, holako jauntzitan ikus-eta.
OMONIERA . - Laket zaut Jainkoak beretzea kreatura pollitenak !
ROXALI . - Bon, atsegin egin dautazu lausenguz. Orai zerbitza nezazu egiaz. Zer pentsatzen duzu arropa huntaz ?
OMONIERA . - Egiatik nahi duzunaz geroz, huna zer dudana pentsatzen : Arras ongi beztitua zirela, mutilen tentatzeko. Arras gaizki, heien ongiratzeko... Dena da zer nahi duzun !
ROXALI . - Nik nahi dudana da serora egin. Bainan, ez oxtian hunarat etorri den, moda zaharreko seror horietarik. Horien izpiritua baita, dena gurutze, sakrifizio eta holako mamutzez betea. Iduri dute bizirik lurperatuak.
OMONIERA . - Eta nolakoa nahi zinuke izan dadien, zuretzat on liteken komentua ?
ROXALI . - Nere komentua nahi nuke, zerradurarik gabea... Kanpoz eta barnez airoa. Horko serorak litezke gaurko emazte eta neskatxak bezala beztituak...
OMONIERA . - Orai, zu bezala ?
ROXALI . - Zergatik ez ? Ala, mutilak dira pozoinduak ? Komentu hartan balitezke biltokiak, abusa lekuak, ostatu bat ere.
OMONIERA . - Bala toki bat ere, erran gabe doa !
ROXALI . - Zergatik ez, hura ere ? Gazteak biltzen diren lekuan, dantza ez ote da beharrezkoa ?
OMONIERA . - Hango serorek baluketea erreglamendurik ?
ROXALI . - Bakotxari liteke bere erreglamendua egitea eta hari jarraitzea. Serorak ezkont litezke, bainan ezkondu nahiko luketenek, beharko lukete komentua utzi.
OMONIERA . - Ni beldur zure komentu hori laster erreko litekela, lastoa eta sua hola hartan metatuz.
ROXALI . - Komentu hori ez liteke lastozko serorentzat, bainan fedezko suz errerik daudenentzat.
OMONIERA . - Bai, bai... Ez da holako komentu eskasik bazterretan.
ROXALI . - Nun ? Bada bat hemendik hurbil ?
OMONIERA . - Roxali, ba. Holatsuko komentuak dira, dirutan truk, beren gorputza eskaintzen duten, neska galduen etxeak.
ROXALI . - (*Bizi-bizia*) Zer nauzu ni ? Neska galdu batentzat hartzen ?
OMONIERA . - Ez Roxali, bainan zure ametsetako komentuez dautzut nere ikusbidea agertzen.
ROXALI . - Bon, hoin hertsia denaz geroz Eliza katolikoa, ni protestant egiten naiz.

OMONIERA . - Ez duzu batere xede makurra... Haatik, protestant zintzo izaitekotan. Segur Jainkoari laketago zaio protestant zintzo bat, ezenez katoliko faltso bat.

AMA . - (*Sartuz*) Barkatu otoi, bainan Jakinputz jaun mirikua hemen da. Roxali, zu behar omen zaitu lehenbailehen ikusi.

ROXALI . - Sar araz zazu ! (*Ama ateratzen da*)

JAKINPUTZ . - (*Sartuz*) Agur, jaun omoniera ! Agur, Roxali !

BIEK . - Agur, jaun mirikua !

JAKINPUTZ . - Roxali, polizak eskaturik heldu naiz, hurbildik iker dezadan ean errabiaz joa ziren, ala ez.

ROXALI . - Ni errabiatua ? Badutea burutik !

JAKINPUTZ . - Nere segurtamena da, ez duzula errabiarik, bainan nahi dituzte frogak.

OMONIERA . - (*Irriño batekin*) Zure psikanalizako jakintzak baduia zer ikusirik errabiarekin !

JAKINPUTZ . - Bai, jaun omoniera. Freud gure nausiak dio, guti gizon dela errabia bil dezakenik. Zergatik hori ?... Zeren eta errabia baiditezke bakarrik, zakurretik jausten diren gizonak.

OMONIERA . - Eta, zakurretik jausten ez direnak, nondik jinak dira ?

JAKINPUTZ . - Edozoin bertze alimale motetarik.

OMONIERA . - Banakien gizonen artean badela asko zakur eta xakur... Orai konprenitzen dut zergatik.

JAKINPUTZ . - Psikanalizten asmoa da eritasun guziek, etorkian dutela beren iturburua. Gure odola da erreka ura bezala. Urak, sortu den lekuko eta iragan dituen bidetako on-gaitz guziak biltzen ditu. Halaber gure odolak. Daitekena da beraz bainan ahatik frogatzekoa Roxali dela ausikilaria, bere etorkian baduelakotz zakur odolatik.

OMONIERA . - Eta ostikolariak, zer dira ? Mandotik jausten ?

JAKINPUTZ . - Mandotik edo bertze zonbait aberetarik. Ez baitira mandoak bakarrik ostikoka aritzen.

OMONIERA . - Beraz Roxalik ez du deus hobenik, norbaiti ausiki diolarik egiten ? Orduan, zergatik huni igor poliza ?

JAKINPUTZ . - Mundu huntan, nehor ez da deusetaz hobendun. Gure jokabide guziak, on ala txarrak, heldu dira gure odolatik. Hortakotz, nehork ez du merezi gaztigurik. Gaxtoa den jendea, ez da gaztigatu behar, bainan sanotu, haren gaxtakeriaren erroak atzeman ez eta artatuz. Hori da psikanalizten asmoa. Hori obratuz baita gaurko mundua berrituko eta onduko.

OMONIERA . - Banoa hemendik, jaun mirikua. Ez bainaiz arras ados zure erranekin, ele nahasitan sar gintezke eta beldur naiz, ez ote dautazun aterako, nere odola heldu dela oilo koloka arrolzetik ! Agur beraz ! (*Ateratzen da*)

JAKINPUTZ . - Apez gaizoa ! Ona da, bainan gaurko jakintza berritarik, arras bazter bizi dena... Bon, bainan ez dut ahantzi behar, zurekin egitekoa dudana... Behar nuke baitezpada zure pixa analizatu.

ROXALI . - Zer !

JAKINPUTZ . - Ba, zure pixa analizatu, ikusteko ean zakurrenekin baduenetz ahaidetasunik.

ROXALI . - So egizu, jaun mirikua. Ez zira hunat jina, nik galdeturik. Ez naiz ni, demendrenik, ez psikanaliza, ez eta ere pix-analiza beharretan.

JAKINPUTZ . - Bainan, polizari zerbait froga behar diot eman, ez zirela errabiatua.

ROXALI . - Aski diozute baso bat pitar eremaitea !

JAKINPUTZ . - Bainan, zure onetan ari naiz !...

ROXALI . - (*Orroaz*) Orai aski eta aski ! Izigarriko tirria heldu zaut zuri ere ausiki egiteko ! Zoaz fite hemendik ! Senditzen dut ez naizela gehiago nere buruaren jabe !... Zoaz fite !

JAKINPUTZ . - (*Ikaratua, ihes egiten du*) Ezti zaite ! Banoa... Ezti zaite !

ROXALI . - (*Bakarrik... Apur bat so dago gibeletik mirikuari... Irriz populuari*) Nere arbasoak, zakurrak balinbaziren, horrenak segur erbiak zitezken !

OIHALA

BORTZGARREN GERTALDIA

Joka-lekua : Aintzineko bera.

AMA . - (*Bakarrik, lanean ari... Atea jotzen dute*) Aintzinat ! (*Sartzen dira Kankail eta Pollit*)

BIEK . - Agur, anderea !

AMA . - (*Beldurti*) Agur, jaunak ! Zer, zer da ? Zerbait gertatu da ?

KANKAIL . - Ez anderea ! Ez izi ! Ez da deus makurrik gertatu ! Zure alaba Roxalirekin nahi ginuke mintzatu !

AMA . - Zer egin du ?

KANKAIL . - Deus handirik ez !... Ez kexa !...

AMA . - Ez da hemen... Ateraia da eta ez dakit noiz artio !

KANKAIL . - Aipatu dautzuia nola zakur bati ausiki egin dion ?

AMA . - Gure Roxali, zakur batek ausiki ? Nungo zakurrak ?

KANKAIL . - Ez, ez dio zakurrak Roxaliri ausiki egin, bainan Roxalik zakurrari.

AMA . - Zer da bitzikeria hori ?

KANKAIL . - Bitzikeria, bainan egia... Mixel tindatzaileak badu xakur xuri ttipi bat. Bere nausiaren aintzinean, zuen Roxalik hartu du zakur hori bi beharritarik, ausiki egin dio muturretik eta sudur puska bat kendu.

AMA . - Bainan, bainan, ezin sinetsia da !

KANKAIL . - Lekukoak badira.

AMA . - Eta zer ondorio luke egitate horrek Roxalirentzat ?

KANKAIL . - Mixelenganik auzia segur du eta Alimalen Gerizlari

Batasunarenganik ere ba. Basa behar baita izan xakur bat hola xahutzeko.

AMA . - Nahi nuke egia jakin, Roxaliren ahotik. Hain baitzaut akusamendu hori zentzurik gabekoa.

KANKAIL . - Harritzen zirela ? Roxalik, jada bietan, ausiki egin dio nere lagun polizgizon huni. Zauri horiek itsuski gaxtatu dira. Eta nola orai, zakur bati egin baitio ausiki, ikaretan gira ez ote den Roxali errabiatua.

AMA . - Errabiatua ! Roxali errabiatua ! Bainan, nun zabiltzate ?

KANKAIL . - Ba, eta bertzalde, mirikua igorri diogu, ikert zezan ean errabiatua den... Bainan Roxalik ez du bere burua ikertzerat utzi nahi. Eta gainerat mirikuari ere ausiki egin nahi zion.

AMA . - Zer dira ixtorio horiek guziak ! Bainan, burua galtzekoa ere bada ! Edo, arras burtxoratuak zabiltzate, edo... nik ez dakit zer pentsa !

KANKAIL . - Zure alaba ez ote da bederen drogatzen !

AMA . - Zer ! Gure Roxali drogatzen ? Hori ere bai ote, konduen gaineko ?

KANKAIL . - Gaurko gaztetan bada gero denetarik, eta, nehork uste ez duena da drogari emana.

AMA . - Roxali nerekin bizi da. Egun guziak elgarrekin joaiten ditugu. Ez zait iduritzen, nik baino hobeki, gure Roxali ezagutzen duenik, norbait izan daitekela.

KANKAIL . - Gauzak ez dira berdin ikusten etxeko eta kanpoko begiz. Dena den, gu bagoaz. Bainan Roxaliri erranen diozu, bere onetan, lehenbailehen etor dadien gu ikusterat.

AMA . - Ez duzue bederen gaizki erabiliko ?

KANKAIL . - Ez... Ez da hori gure jokabidea. Galdatuko dioguna, bakarrik da, mirikutarat joan dadien, mia dezaten ean errabiatua den ala ez.

AMA . - Nik, Roxaliri eginen diot zuen komixioea. Bainan, ihardespena bere gain da. Badakizue, adinerat heldua da eta nik ez dezaket herrestan ekar zuenganat.

KANKAIL . - Errozu etor dadien bere onetan, bere onetan ! Eta, agur anderea !

POLLIT . - Agur anderea !

KANKAIL . - Agur, ba jaunak ! (*Bakarrik*) Egia handia da, haur egin zuenak, lan egin zuela. Eta ere, haurrak hazi eta grinak hasi ! Mundu hau sobera laster doa. Norat joan ikusteko, gaztek eskas begi eta zaharrek ezin segi. (*Atea jotzen dute*) Aintzinat !

OMONIERA . - (*Agertuz*) Agur, anderea !

AMA . - Agur, jaun omoniera. Tenore onean heldu zira. Bakarrik naiz eta... nere buruarekin erasian ari, ez baitakit nola goberna Roxali.

OMONIERA . - Nik ere, atzo, handiskoak bota niozkan. Geroztik, Roxaliz mintzatu naiz serora superiorarekin. Hunentzat, ez omen daiteke hain mamiz hutsa, Roxaliren bokazioea. Hortakotz berriz heldu naiz, zure alabaren xedeak behar ditudala hobeki zilatu.

AMA . - Otoi bere gisa utz-azu, Roxalik bokazioea duelako asmoa. Atzo, komedia bat muntatu dautzue, bai zuri eta bai andere serorari. Zuekin nahi zuen abusatu eta bertzerik ez.

OMONIERA . - Ha bon, on da jakitea !

AMA . - Nik ez dakit zer daukan buruan haur horrek. Batean ezkonduko eta bertzean serora egingo duela. Gaur aingeru eta bihar debru. Hor dabila jauzika astotik zaldirat eta zalditik astorat !

OMONIERA . - Zorigaitzez, gaurko hainitz gazte hortan dira, Euskal Herrian berean ere. Fedea eta euskaldungoa ahulduz geroz, bere zimendu baliosenez gabetzen da hemengo gizon bizia. Hortakotz dira ikusten, gure artean hoinbertze gazte, ez baitakite zeri lot beren bizia. (*Atea jotzen dute*)

AMA . - Bertze norbait ere badugu hemen. (*Oihuz*) Aintzinat !

MIXEL . - (*Sartuz*) Agur jaun omoniera ! Agur anderea !

OMONIERA . - Agur Mixel !... Bon, ni banoa ! Geroxago berriz itzuliko naiz.

MIXEL . - Neregatik egoiten ahal zira, jaun omoniera. Bi hitzez erranak ditut erraitekoak.

OMONIERA . - Ez ! Roxalirekin mintzatzerat etorria nintzen. Nola ez baita hemen, geroxago berriz etorriko naiz. Agur beraz bieri !

BIEK . - Agur bai, jaun omoniera !

MIXEL . - Ni ere, zu nardatzerat heldu naiz ba !

AMA . - Bainan, zer gertatzen da Mixel ? Oxtian bi polizgizon izan dira hemen eta erran dautet gure Roxalik, zure zakurra ausiki duela. Jakin nahi nuke egia, den bezala !

MIXEL . - Egia hauxet da : Ate bat tindatzen ari nintzen, nere xakurra ondoan. Roxali hurbildu zait ! Nik ez nion kasurik egiten. Nere xakurra joan zaio zangotarat. Bi beharritarik hartu du eta, hortz kolpe batez, sudur muturra kendu dio.

AMA . - Bainan, zergatik egin du basakeria hori ?

MIXEL . - Nik dakita ? Beharbada errabiaz, ez niolakotz berari kasurik egiten.

AMA . - Eta, ausikiaren ondotik, solas eman diozuia ?

MIXEL . - Ez... Xakurra, odoletan eta marrumaz, etxerat sartu baita, ni ere barnerat sartu naiz, madarizione batzu botatzen nituela.

AMA . - Jesu, Jesu ! Nork behar du pentsatu ere, zakur bati ausiki egitea ?

MIXEL . - Ba, bainan gertakari hunek badu bere ondorioa ! Nere xakurra erakutsi diot marexalari. Eta hunek erran daut baitezpadakoa dela mirikuek ikus dezaten ean Roxali, ez ote den errabiaz joa. Berak, polizari berehala telefonatu du, erranez zer gertatzen den. Eta nere xakurra bahitu daut, Roxaliren gorabehera ikertu artio.

AMA . - Hoo ! Jainko ona !

MIXEL . - Horra zer erraiterat etorria nintzen. Gertatzen denaz, otoi, jakintsun egizu Roxali. Eta, erran gabe doa, bere gain izanen direla xakurrarentzat egin gastuak. Pena dut ez baitut zuri emaiteko berri hoberik.

AMA . - Hola balinbada, eskubidez zabilta.

MIXEL . - Beraz, erranak erran, huntan uzten zaitut. (*Ateratzen da*)

AMA . - Agur, ba, Mixel ! (*Bakarrik*) Neska filda !... Datorla dator ! Nago, zer karta dituen jokatuko, oraiko huntan, ni balakatzeko... Ha, ikusten dut heldu dela. (*Roxali sartzen da. Ama samur*) Errazu, Roxali, poliza eta Mixel tindatzailea izan dira hemen. Zer dira zakur ixtorio horiek ?

ROXALI . - Ha, horregatik jin direa ? Ez bide zuten bertze egitekorik !

AMA . - Ez da hori axaletik hartzeko gertakari bat. Zer egin duzu ?

ROXALI . - Fitsik, ama fitsik... Mixelek huiatu daut bere zakur txarra. Nola berrikitan nonbait irakurtua bainuen, zakur baten izitzeko molderik hoberena dela, berari muturretik ausiki egitea, nik halaxet egin diot. Eta, ez dut hortaz demendreneko dolurik.

AMA . - Zuk diozu Mixelek huiatu dautzula bere zakurra. Harek dio, zakurra, bere baitarik dela zugarat hurbildu.

ROXALI . - (*Samur*) Errazu, ama, ez nezazula ni narda, bi sosen aipua balio ez duen gertakizun horrekin. Ala, zer duzu ? Mixel, zure alaba baino maiteago ?

AMA . - (*Boza ozenduz*) Ez dut onartzen hola mintza zaitezen... Segur naiz, bihar berean, kazeta guziek zabalduko dutela berria.

ROXALI . - Eta gero ? Nik hortaz, zer hoben dut ?

AMA . - Bertzalde, polizak galdatzen du lehenbailehen ospitalerat joan zaiten, ikertu behar omen baitute, ez ote ziren errabiatua.

ROXALI . - *(Erotua)* Ama, bakea eni ! Bakea gero zure analiza, ospitale eta botiga horiekin... Sobera balinbanaiz etxe huntan, aski duzu erraitea... Lekuak hustuko ditut !

AMA . - *(Bortizki)* Zerbait erasia entzun ordu, ez duzu bertze ihardespelik : "Bakea neri !... Leku hauk hustuko ditut !" eta holako... Aski dituzu beraz hustea. Eta, zuk ere, bakea eni !

ROXALI . - *(Harritua)* Zer ! Zu ? Zu, ama, hola mintzo ?

AMA . - Ni ba, ni ! *(Ateratzen da)*

ROXALI . - *(Nigarrez)* Ikusten dut ez nauzula gehiago maite !... *(Apur baten buruan, fermu eta hotz)* Ha baia ! Sobera niza etxe huntan ! Berehala nere burua garbitzen dut... Bala bat aski da hortako... Nun da gure errebolbera ?... Ha, huna hemen ! *(Eskutan hartzen du, bainan berehala uzten, beldurrezko grimasa bat eginez)* Ez hunekin... Puah ! Dena odola gero !... Bertze zerbaitekin. Ha, huna soka ! Sokaz ba ! *(Soka lotzen du, frango behera den itze ahul bati... Lepotik ezartzen du urka-bilurra)* Bon, gauden prest... Entzunen dudalarik ama heldu dela, orduan emanen naiz zintzilik. Ha, heldu da. *(Bere burua zintzilik emaiten du, bainan itzeak ez du jasaiten bere karga eta oro lurrerat erortzen dira. Roxali, jarririk dago, soka lepotik, mihia tiraka eta orro batzu entzun araziz, urkatzen ari balitz bezala)*

AMA . - *(Sartuz)* Zer ari zira hola ?... Bainan, zer ari zira ? Ez du balio ez, hola mihi tiraka aritzea !... Ez duzuia ikusten soka laxoan duzula !

ROXALI . - *(Intzirinka)* Leku hauek husteko erran dautazunaz geroz, nahi ditut betikotz hustu.

AMA . - Xuti zaitte hortik, ergel txarra zu ! Ez zirea ahalge holako xorakeritan aritzeko zure adinean ?...

ROXALI . - *(Xutituz, erdi nigarrez)* Eta, zu, ez zirea ahalge, ama !...

AMA . - Ni ahalge ? Zertaz ?

ROXALI . - Ikusten duzu zure haur bakarra, etsitua, bere buruaz bertze egiterat doala eta solas goxo bat ere ez duzuia haren kontsolatzeko ?

AMA . - Orai zabilitzea nere kontsolamenduen eske ? Ez ote dautazu miletan erran, ez zinela haur bat ! Ez zinuela eskatzen niganik, ez kontsolamendurik, ez eta kontseilurik... Antola-zkitzu ile horiek, pixka bat, zu, xoxo lehena !

(Ateratzen da)

ROXALI . - *(Bere burua eta ingurua ordrean emanik, jartzen da... Apur bat dago gogoetan)* Ha, hori dea ? Sakatu behar diot gezur bat ikaragarria... Gezur bat, min eginen baitio, ni hiltzeak baino gehiago.

AMA . - *(Sartuz)* Apur baten buruan, segur hemen izanen duzu poliza. Onez eta bortxaz, gizon horiek eramanen zaitute. Prest egoiten ahal zira.

ROXALI . - *(Eztiki, iduriz herabetua)* Ama !

AMA . - Zer duzu ?

ROXALI . - Zerbait gorde dautzut !

AMA . - Zerbait gorde ? Zer !

ROXALI . - Ez zira samurtuko ?

AMA . - Samurtu ala ez, mintza zaitte.

ROXALI . - Ama ! Ahalge naiz erraiteko.

AMA . - Bainan zer duzu ? Ez ditut maite ixtorio-mixterioak ! Erraitekoa, erran garbiki !

ROXALI . - Ama, esperantzeta naiz !

AMA . - Zer ?

ROXALI . - (*Erdi nigarrez*) Ba, ama, esperantzeta naiz !... Ez zaitela otoi samur !

AMA . - Esperantzeta zu ?... Zu ?... Atzo zinion, zure burua beti errespeta arazi duzula, serora sartu behar zinuela !... Eta gaur, esperantzeta zirela ! Gure zeruko Jainko ona !... Eta jakiten ahal duta haur horren aita nor den !

ROXALI . - Mixel tindatzailea !

AMA . - Ha... Halere nonbait hor. Ez baita bederen gizon ezkondu bat edo emaztekari galdu zirtzil bat !

ROXALI . - Ba, bainan Mixelek ez du nerekin ezkondu nahi !... Horra, ama, nolakoa den, zuk estimu handitan daukazun mutil zintzo hori !

AMA . - Ez bazaitu maite, ongi egiten du zurekin ez ezkontzea... Bainan, pentsatzen dut lagunduko zaituela haur horren hazten.

ROXALI . - Uste balinbaduzu haur hori mundurat etorriko dela !... Erremedioak hor dira gero, ama !

AMA . - Zer ! Ahuleziaren gainerat krima ! Baduzuia burutik ? Jin dadiela haur hori mundurat, eta, ez balinbazira gai horren hazteko, nihaurek haziko dut... Bon, horra nun heldu den, berriz ere, jaun mirikua.

ROXALI . - Ni gordetzen naiz, dagola hemen, apur bat, nere goait. (*Jalitzen da*)

AMA . - Aintzinat !

JAKINPUTZ . - Agur, anderea !

AMA . - Agur, jaun mirikua !

JAKINPUTZ . - Oraiko aldia, polizarekin heldu naiz Roxaliren bilat. Bi polizgizon hor daude atean. Edo, etorriko da, onez onean, nerekin, edo, bortxaz hartu-eta joanen dute.

AMA . - Nik ez dezaket hortan deus, jaun mirikua. Bertzalde, miriku bezala eta sekretuan jakin behar duzuna da, Roxali esperantzeta dela !

JAKINPUTZ . - Hobe segurki !

AMA . - Hobe !... Hobe diozua !

JAKINPUTZ . - Ba, hola denaz geroz, nere psikanalizari buruz, horren kasua miletan interesantago baita...

AMA . - Nahiago nuke bertze interesik agertzen bazinu haur horrentzat... Eta, ez baitago bere zainen jabe, ahalaz polliki goberna zaite horrekin. Duela apur bat, bere burua garbitu nahi zuen.

JAKINPUTZ . - (*Eskuak torratuz*) Izigarri interesanta ! Ez izan beldurrik ! Zure alabarekin harremanetan sartuko naiz, udaberriko arrosa bati ekar nezoken jokamolde berarekin.

AMA . - Igortzen dautzut berehala. (*Jalitzen da*)

JAKINPUTZ . - (*Bakarrik*) Freud, gure nausi handiak zion : Ume beharretan den behia... zezenez betea... Ibil gaiten beraz leunki.

ROXALI . - (*Sartuz, errebolbera eskuan, errabi gorrian mintzo*) Nork erran dautzu zuri, niganat jiteko ?

JAKINPUTZ . - (*Ikaratua*) Ezti zaite, otoi ! Ezti zaite !

ROXALI . - Zer, ezti eta ezti zaite ? Leporaino ase a naiz zure psikanaliza zozoarekin ! Zure jakintza eta jats giderrarena berdintsu dira. Ez dezaket jasan begien aintzinean, zu bezalako gizon tetele putzik !

JAKINPUTZ . - Otoi, otoi !... Ezti zaite, Roxali.

ROXALI . - Zoaz hemendik berehala edo errebolber huntaz burua erretzen dautzut. (*Jakinputz zangoak daldaretan, erortzen da erdi flakatura*)

AMA . - (*Sartuz tirahala*) Haurra ! Bainan, bainan zer egin duzu ?

ROXALI . - Zuk, ama, errozute kanpoan diren bi panderu horieri, jin diten "paketa" hunen hartzerat... Joan dezatela ospitalerat. Nik, ez dudala horien beharrik harat joateko. Joanen naizela nihaur ! (*Jalitzen da*)

AMA . - (*Ateratzen da eta berriz sartzen, Kankail eta Pollitekin*) Ez dakit, jaunak, zer gertatu den hemen. Fitsik ez dakit. Kalapita zerbait izan bide dute beren artean. Roxali, jali da erranez ospitalerat bera joanen dela.

POLLIT . - Ez dio bederen ausiki egin huni ere ?

AMA . - Ez, ez dut uste !

KANKAIL . - Bon karga dezagun mirikua eta joan lehenbailehen ospitalerat. Gerokoak gero ! Lot zaite zangotarik, Pollit. (*Hiruak ateratzen dira*)

ROXALI . - (*Zango punttetan sartuz, irriz dago, leihotik so*) Hau ere ez dea gertakari pollita ! Mirikua jin, eria ospitalerat joateko, eta eriak igorri mirikua ospitalerat ! Holako mirikuak ez duela tirrit balio : Horra nere psikanaliza !

AMA . - (*Sartuz*) Zu hemen, Roxali ?

ROXALI . - (*Alegera eta maleziatsu*) Zure ondoan goxoki, amatto maitea ! Eta, ez dezagun odol gaxtorik egin... Gezurra erran dautzut gero esperantzetan nintzela. Barka zadazut, otoi !

AMA . - Zer !

ROXALI . - Ba, ez naiz batere esperantzetan, eta, ez nuen demendreneko gogorik nere burua urkatzeko.

AMA . - Bainan, ni zertzat hartzen nauzu ? Zer kopeta ! Eta zer birika !... Zertan zaude hemen, ospitalerat joan gabe eta noiz artio ?

ROXALI . - Oiloak pixa egin artio, amatto, eta ez minuta bat gehiago !

AMA . - Nago, zerk zaituen hola bihurritzen !

ROXALI . - Errabiak, amatto, errabiak !

AMA . - Nik ez dakit noren odoletik ziren zu !

ROXALI . - Nork jakinen du, zuk ez jakitekotan ?

AMA . - Bakea neri zure ergelkeriekin, ez bainaiz batere jostagurean !

ROXALI . - Ez, amatto, ez uste izan hain desberdinak girela, zu eta ni.

Desberdinak dira bakarrik, zuk onartzen duzun mundua eta nik amesten dudan mundua !

AMA . - Zer erran nahi duzu ?

ROXALI . - Erran nahi dut, amatto, zure jokamolde guzia dela : Lan egin, dirua irabaz eta ongi bizi. Arima gabeko diruzalek muntatu zuten gaurko gure mundua. Zu hortan sartu zinen, hortan bizi zira eta hortan hilen zira... Mundu hori onartua duzu eta ez dezakezula bertze biderik har diozu. Zure baitakoari, behin betikotz uko eginik, zure bizia jokatzen duzu, bertzek zuretzat tiratu marreri jarraikiz.

AMA . - Eta zuk, zure bizia, nolakoa ikusten duzu ?

ROXALI . - Nik, nahi dut amets pixka bat nere bizian... Maitasunari berea eman. Denak dabilzan erreketarik atera. Jenden errankizunen gainetik hegaldaka

ibili... Neronek ideki bidexkeri jarraiki. Mundu huntako otsoek sudurkatuko ez duten xokoño maite, gorde eta apaindu bat, neretzat eta nihaurek muntatu. Zonbait gizon bakarrek, ooren biziari ezarri marretarik kanpo, nere partida jokatu. Horra, ama, nere ametsa. Zure munduan ez naiteke laket. Bertze mundu bat behar dut nik !

AMA . - Bertze mundu bat !... Amets egitea errex da, bainan zuk amestu mundurik nehun ez da !

ROXALI . - Ba, ama ! Ametsak ez dira huskeria hutsak... Ni segur naiz... Nik amesten dudan mundu hori, nonbait bada !

OIHALA